

Kattalin Miner

TABERNA ZULOKO BLOGARIA

Lagun feminista izatea



nartzen zaila bada ere, denborarekin konturatzen zara, feminista izateagatik badituzula heteroaraua aukeratu eta betetzen dutenen interesa sortzeko hainbat puntu.

Segituan ulertuko didazue zuek zeuok ere feminista bazarete edo lagun feministaren bat baduzue. Nik beti jartzen ditut hiru-lau kasu, eta saiatuko naiz denak laburbiltzen.

Demagun, unibertsitateko zure lagun hetero-jator eta nahikoa “suelta” zen horren dei bat jasotzen duzula. Kontuan izanik urte eta erdi daramazula bere berririk izan gabe, zer izan daiteke deiaren arrazoia? Ez ezazue gezurrik esan, norbera feminista izan edo ez, denok pentsatzen dugu fabore bat eskatzeko izaten dela. Beraz, azalduko dizkizuet, niri esperientziak emandako hiru-lau aukera posibleak.

Bat: “Begira eske nire lagun batek [hau da, berak] non abortatu dezakeen jakiteko deitzen dizut”. Ondo da. Hau kuriozoena izaten da, kontuan izanik, nire lesbiana bizitza honetan ez dudala sekula abortatu; baina are kuriozoagoa da, dei hauek direla eta, ederki dakidala nora bidali.

Bi: “Begira eske oso larrituta nago nire lagun batek [hemen bai izaten da benetan lagun bat] oso harreman txarra dauka bere mutilarekin, jada ez dakigu zer egin, ez digu ezer kontatzen, oso gaizki tratatzen du



DANI BLANCO

mutilak... Berekin hitz egingo bazenu...”. Eta bat-batean asistenta lana betetzen ikusten duzu zure burua, total zertarako eta, bere mutilak zu gorrotatzen bukatzeko, eta ondoren neskak berak, ezer aldatu gabe.

Hiru: “Nire mutilarekin oso gustura nago, asko maite dut eta hori dena, baina esperimintatzeko gogoia daukat, beste batzuekin egon, probatu...”. Ondo da. Eta hemen entzun nahi duen hori botatzen diozu, horretarako deitu baitiztu, “ba egin kasu zure desioei, probatu eta abar, baina onena berekin hitz egitea duzu, gauzak argi utziz...”. Hemen kuriozoa da, lehenengo zatiari bakarrik kasu egin ohi dizutela, mutilarekin hitz egitearena ahaztu egiten dutela. Gero, feministak gorrotatzen dituen mutil bat gehiago gehitzen da gorroto zaituztenen listara.

Zer egingo diogu baina, baditugu lagun abokatu edo medikuak ere, eta haiei ere antzekoa gertatuko zaielakoan nago (“antibiotikoak hartzen nabil, edan al dezaket?”), beraz ez naiz gehiegi kexatuko, batez ere beste topiko bat ahaztu dudalako zerrendan: “Neska batekin oheratzea probatu nahi nuke...”, eta hor, hor gorrotatzen zaituen beste mutil bat sartzen da listan, baina normalean gehiago merezi izan ohi du. ■



«

Demagun
unibertsitateko zure
lagun hetero-jator eta
nahikoa ‘suelta’
baten deia
jasotzen duzula (...).
Azalduko dizkizuet,
niri esperientziak
emandako hiru-lau
aukera posibleak

»

TXANDAN

Josu Amezaga



Irlandako lurjabeentzat lan egiten zuen ofizial ingelesa zen Charles Boycott. Lurren eta etxeen jabetza gauza sakratuen pare jarririk, gupidarik gabe tratatu zituen euren bizilekuetatik egotzitako maizterrak. 1880an, Irish Land League nazionalistak antolatuta ekimen zabalago baten barnean, Boycotten aurkako isolamendu kanpaina abiatu zen herrian: bere nekazariak batu gabe utzi zuten uzta; etxeko zerbitzariak bertan behera utzi zuten garbiketa; dendariak ez zioten ezer saltzen, ez eta postariak gutunak eramaten. Azkenean, urte hartan bertan alde egin

Charles Boycott

behar izan zuen Irlandatik, historiarako utziz hizkuntzarteko hitz indartsu bat.

Duela aste batzuk saiatu da BBK gure seme txikiaren ikasgelako ume baten etxea kentzen, eta forma akats batengatik soilik atzeratu ahal izan da enkantea. Nik Kutxabankeko lehendakariari idatzi diot gaur, Charles Boycotten historia azalduz eta familia hau egozten badute aurrerantzean nire sosak usaindu ere ez dituela egingo hitz emanez.

Egungo krisia munduko jabe handiek herrien aurka abiatutako eraso da, nagusiki. Elkartasunak, eta ez teknokraziak, aterako gaitu zulotik. ■

